

ARAUZKO TESTUAK EUSKALKIEN TRADIZIOAN: SAN FRANTZISKOREN HIRUGARREN ORDENA

1. Hasikinak

Maiz ikusten dira gure euskal liburudenda klasikoenetan, euskarazko tituluen ilara luzeak bukatzen diren une berean, halako idaztiño xume eta azal belzdunak, inork inoiz eskuratu-ko ez dituenak. Distira osoko liburuen hegaletan baino, zokondo-zokondoenean egoten dira horiek, bazter utzita, sekula ere bertaratuko ez den irakurle gosetsu bezain aseezinaren esperoan.

Gehienetan —guztietan ez esatearren— Elizako kontuak dira liburu horien edukiak: garai bateko bederatziurrenak, eliz kantik nahiz otoitzak... Gaur egun, hain zuzen ere, jakin-min handia sortzen ez dutenak.

Euskal literaturaren liburuek aspalditik uxatu zituzten euren orrialdeetatik, eta filologo eta hizkuntzalariek ere ez diete aukera handirik ematen, datu zehatz eta puntu jakin batzuen gaineko xehetasunetan ez bada. Izan ere, badira eguneroko azokan horiek baino arrakastatsuagoak.

Mezua eta edukia zaharkituta, erabat gaindituta dituzte horiek. Joanak dira euren aldiak. Behinolako *best seller* izan